

Gorka Menendezek sendabedarren katalogoa atera dau

13. orrialdea

Alex Txikon Kangchenjungan, tontorra egiteko bidean

Hilaren 18an zapalduko dabe Kangchenjungaren tontorra (8.586 m) Alex Txikonek eta bere espedizionokideak dana aurreikusitako moduan badao. Iparraldeko bide britaniarretik abiatu dira atzen zatiari ekiteko. Txikonek handik bueltan berbaldia eskeiniko dau Diman hilaren 30ean. 11. orrialdea



Igor Menika Arratiako Bertsolari Txapelketan irabazle

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

208

2014ko maiatzaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org



Areatzan egin zan atzenengo jantza astegoienero familia argazkia.

Erromeria eta korru jantzak Areatzako plazan

AKKB-k Aiko taldeagaz folk jardunaldiak antolatu ditu hilaren 17 eta 18rako. Erromeria, fanfarreak, erraldoiak... musika tradizionalak hartuko ditu Areatzako kaleak jentek jantzan egin daian. Jantzen artean, korru jantzak izango dabe protagonismoa: jauzi jantzak eta mutil

jantzak, eta horreek ikasteko tailerrak egongo dira, Claude Iruretagoiena eta Patxi Labordaren eskutik, hurrengoz hurrengo.

Jardunaldi honeekaz, AKKBk musika tradizionalari eskeinitako hamabostaldia zarratuko dau. Egunotan, ume eta

nagusientzako kontzertuen bidez, "txistua beste begi batzuekaz" ikusteko aukerea egon da eta gazteenak euskal musika tresna tradizionalak ezagutu dabez.

Hurrengo hamabostaldia jazz-ari eta musika klasiko edo idatzari eskeini deutzaz AKKBk. 8. eta 9. orrialdeak

ARRATIA

Aste Berdea eta konpostaje eguna

Hilaren 26tik 30era, Aste Berdea ospatuko dabe Arratiako ikastetxeak. Aurten Eskolako Agenda 21ek berderatzi urte betetzen ditu eta eskolan egindako lana erakutsi gura deutse jenteari erakusketa baten bitartez. Eskolako ortuak, konpostajea, bio-niztasuna, sendabedarrak, energia eta bertoko produktuak dira ikastetxeetan landuten dabezan gai batzuk. Aktibatu + ekimenaren aurkezpenak, Gorbeialdeko produktuen inguruko mahai-inguruak eta konpostajearen egunak osotuko dabe egitaraua. 7. orrialdea



DIMA

IV. Nekazalpunk jaialdia

Maiatzaren 17an izango da jaialdia. Nekazal-artisanu azokea, Zarpantzarrak, umeentzako jolasak, poteo kalejira punk-a, paella txapelketea eta kontzertuak egongo dira. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabatik etorritako hamabi taldek joko dabe punk musikea arrastiko 17:30etik aurrera. Taldeok, Lastuerkas, Barbiturikos, Escupitajos, Pleonakis Plektos, Rombos Negros, Punto Muerto, Maldita Sea, Primeros Auxilios, Poliputos, Al infierno en goitibera, Mal Del Pan, eta DJ Puto Gus dira. Akanpetako lekua egongo da. 6. orrialdea

ZEANURI

Xorokil kanterea ustiatzeko proiektua gelditu gura dabe

Xorokil kantera zabaltzeko jarduera proiektua aurrera doa eta jarduera lizentzia baino ez dala falta emon dau jakitera Arratia Bizirik talde ekologistek. Kanterea Zubizabal inguruan dago, Gorbeiko Parke Naturalaren muga. Alegazinoak aurkezteko epea hilaren 20ra arte da. Proiektuak 34 hektarea ustiatzea aurreikusten dau balio ekologiko handiko eremuan. 5. orrialdea



FISIK

FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA

KERMAN ZABALETA • KOLEGIATU ZENBAKIA 1221
PAULA RAMÍREZ • KOLEGIATU ZENBAKIA 1409

LEHENDAKARI AGIRRE, 17
48140 IGORRE - T.94 685 11 16
fisikfisioterapia@hotmail.com

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

JON MIKEL
ARRATIA
AGARRE (I)

Euskal idazle honeri buruz ez dakigu gauza handirik, eta batu egin dodazan barri eta dokumentu guztiak emongo doguz BEGITUREN irakurleentzat zenbaki honetan eta hurrengo zenbakian. Sabino Aranak 1901ean sortu eban Euzkadi aldizkarian bere lehenengo lanak argitaratu ebazan. Garaiko gaiak erabiliko dauz: erlijinoa, abertzaletasuna, euskerea... Atzen urteetan euskal kanta bilduko dauz eta hirurogeiko hamarkadan Auñamendi Bilduman argia ikusiko dabez.

Iñaki Esparza



TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara
Maiatzaren 12tik 18ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 19tik 25era

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Maiatzaren 26tik bagilaren 1era

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordukin
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordukin behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta
Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandio korrik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Maite Arrizabalaga, Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketza: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Run Together fanzinearen bigarren zenbakia kalean

Fanzine berbea, magazine (aldizkaria) berbatik dator eta politika, zine, historia, literatura eta musika jarraitzaileak, zaleak edo fan amorratuak egindako argitalpen alternatibo bat da. Normalean fan amorratu, fanzine zaleak, tabernetan eta lagunen artean bananduten dira, publiko minoritario bati zuzendua dago eta. Gainera, prezio sinboliko bat izaten dau, gastuak kubriduteko edo behintzat kubriduten saiatzeko.

Papelezko formatu honen sorrerea, Ameriketako Estatu Batuetan izan zan eta gorakada itzela izan eban 60ko eta 90eko hamarkaden bitartean. Euskal Herrian eta estatu osoan, fanzineak presentzia izan dabe 80ko eta 90eko hamarkadetan baina musikeari eta politikari lotuta batez be, Rock Radikal Vasco eta garaiko kultura alternatiboaren presentzia zala medio.

1983-2003 urteen bitartean, estatu mailan garai ederra izan zan Run Together musika estilo antzerako fanzineentzat eta honek dira euskal lurraldeetan sor-

tu ziranak: Oi! Rebelión (Lasarte), Nite Klub (Gasteiz), Dr. Skinhead (Bilbo), Xaymaca (Bilbo), Black & White (Iruña), The Face (Getxo), Rudeboys Secc. Urdaibai...

Gaur egun, aldiz, badagoz baina jarraitasun gitxiagogaz: Zarata (Bilbo), Gerrarte Kids (Azpeitia), King of the jungle (Tolosa), Breaking Rules (Bergara), Black & White (Durango), Glory Days (Bilbo), Racion Doble (Algorta), Izu Giroa (Bilbo)... eta Run Together (Lemoa).

Run Together Fanzine-ak Jamaikako Ska, Rocksteady eta Reggae doinuak zein Punk, Rock eta Oi! musika motak hartzean ditu barne, non alkarrizketak, artikulak eta disko kritikak idazten dituan. Zero eta bat zenbakia atera ondoren, bigarren honegaz estreinetan gara eta jamaikar doinuak (Ska, Rocksteady eta Reggae) jorratzen daben taldeai egindako alkarrizketek aparte, Arratia aldeko lau talde agertzen dira. Lemoako BOU taldea Punk Rock-a landuten, hain bogan eta indartsu dagoan Eskean Kristö Rock&rolleroa, The Jeloskors taldea gogotsu datorren Streetpunk musika motagaz eta Punto Muerto doinu makarragaz, Punk Rock-a hain zuzen be.

PABLO RODRIGUEZ GARCIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidun makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, berrikut eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo beginu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Belu



Adostutako denporea baino geroagoko denpora erreferentzia da belu, baita edozertarako egokia dan unetik harago doan unea be (bélu, agoskatuta). Adibidez: "Belu ibili eta autobusa galdu". Berandu adberbioak lekua jan deutso, eta gero eta gitxiago entzuten da. Aditza belutu edo belu egin da. Amaitzeko, badago Arratian "beluen ekari" esakerea, edadeko gurasoak umeak mundura ekarten dabezanean erabiltzen dana.

ERETXIA

Europar hauteskundeak, hainbat kontu eta gu



XABIER AIERDI

Soziologoa

Atzekoz aurrera hasita edo dana nahasita, bardin da kasurako, Europar hauteskundeetan arduraz botoa emon behar dabe abertzale guztiak, oso garrantzizkoa dalako oraingoetan jokoan dagoana. Botoa emon behar da, besteak beste, abstenzino handi batek Europa oso xenofoboa dakarrelako, eta holango kontestuan adiskide gitxi daukagu.

Jakin badakigu Europar itxaropen handiagoak geunkazala orain dala 20 edo 30 urte. Gainera, herri modura be, inon tokirik aurkitzekotan, Europar ikusten genduan geure burua. Egia da Europa bi badagozala eta bietatik batek bihotza izoztuko deuskula, Machadok Espainiaz esaten eban moduan.

Europa, urteak joan, urteak etorri, gigante ekonomikoa da baina ipotx politikoa, eta horregaitik ez dauka politikoki ezer esaterik, esaterako, ez Ukrainian ezta nazinoarteko politikan be. Baina ekonomikoki erraldoi izanda be, martxa biko Europa interesetan jako eta, txarrena dana, barriro berrestalizau egin da.

Europak zeozer izatekotan identidade politiko gainestatal eta gainazionala izan behar eban, baina ez da, ez bata eta ez bestea. Estaduak agintzen dabe, ez dago momentuz europar identidaderik, gero eta atxikimendu eskasagoa dauka gainera identidade honek, eta barriro logika estatalak agintzen dau. Eta logika estatalak agintzen badau, gura zein ez, bakotzak bakarrik bere uritar propioak defendiduko dauz, eta gura ez dala bada be, xenofobiak egingo dau gora, gainontzeko estaduetako uritarrak ez jakoz interesetan eta. Europaren ideari eutsi beharko eutsienak ez deutsee euren betebeharrari

eusten, Europako idean sakontzea gura ez dabenak izango dira irabazle. Badakigu nortzuk eta zertara datoza. Gero, ez dabe balio atxakiak.

Une honetan, aurreko arriskua gaur egungo politikeagazko desinteresagaz nahasten da eta ez da erreza jentea mobilizetea, eta arrazoi asko dagoz politika eta politikoakandik urrun egoteko, baina ez da abstenzinorako momenturik aproposena. Arrisku xenofoboari arrisku neoliberal metatzen jako. Ikusi dogu zelango politika ekonomikoa datorren Europatik: murrizketak gizarte-zerbitzuetan eta jentartea bitan banandutekoaren aldekoa. Horregaitik, zalantza barik, bakotzak egin dagiala gura dauan aukerea, baina egin beharreko hautuan gizarte-politikak eustearen aldeko eta xenofobiaren aurkako alderdi alde egin behar dau.

Gure herriko egoereari jagokonean, hauteskunde honek badaukie berezitasun pare bat: 1) barruko indarrak neurtzeko balio dabe, baina ez modu erangikorean, hurrengo hauteskundeak udal eta foralak izango dira eta. Udaletakoetan faktore personalak eragin handiago dauka, eta horregaitik oraingoetan alderdi zehatz bateri botoa emon arren, ez dau ezerk aseguretan hurrengoan bardin jokatuko dana. Halanda be, datuak datu, tentenziak zelan doazen ikusteko balio dabe. 2) Bakegintza eta bizikidetzeari erreparauta, susmoa daukat gero eta garrantzi eskasagokoa dala Europa. Gainera, Ukrainian gertatu danak gurea bezalako herrien askatasun eta independentzi bideetan beste oztopo ikaragarri bat ekarri dau.

Beraz, oraingoan botoa emon bai, baina xenofobia geldiarazoteko eta politika sozialdemokratikak suspertuteko. Gero, geroak.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Eusko Legebiltzaria

MONDRAGON

LUMATUTEN



PILI ALVAREZ

Militanziaz eta horizontaltasunaz hausnartzen

Eretxi artikulua baino, galdera sorta aurkeztuko dot Joxemi Zumalabe Fundazioan egin dogun "Dabilen hariari goroldiorik ez" gogoetearen inguruan.

Prest zagoz? Hartu arnasa eta irakurri astiro galderak. Zuretzat zeintzuk dira militetako gazi-goxoak? Egun, militanzia eraldaketan dago? Zein eta zelangoa da militanzia eta identitatearen arteko loturea eta hartu-emona? Zelan ulertzen dogu konpromiso politikoa? Zelan bizi dogu militanzia eta denporearen arteko hartu-emona? Zelan eraldatu lehen-tasunak eta eritmoak?

Posible da, irauli gura dogun jentarte eredu honetako balioen arabera funtzionauz, herri eredu barria erditzea? Ze lotura dago militanzia eta diruaren artean? Militanzia sorkuntza eta gozamenerako eremu gisa be ez geunke ulertu behar? Ez gai-

tu homogenizaziorako joerak harrapatu? Eta militanzia digitala, aldabide ala espilu bihurtu jaku? Zelan militau gura dogu? Zaintza da gure militanziaren erdian dagoana? Non hasten da kidea, taldea eta proiektuaren zaintza?

Kide guztiok baldintza bardinak doguz? Gure jarduera politikoe-tan, jentarte zeharkatzen daberen zapalkuntza eta podere asimetriak ez doguz birsortu eta elikatzen? Zelan irauli hori? Zelan baliatu poderearen ulerkera baikorra? Ausartuko gara egungo sexu genero sistemak gure militanzietan daukan eragina aztertzea? Eta behingoan iraultzea? Zer da horizontaltasuna? Asanbladea eta horiontzaltasuna bardina da ba?

Ez da lan makala galdera horreei guztiari erantzutea, ezta? Gu oraindino gagoz erantzun asko bilatzen baina argi daukaguna da "burruka da bidea"-z gain "burrueka be bidea dala". Horregaitik, militanziaren barrurako begiradeari be balore politikoa emon behar jako eta holan kolektiboen barne bizitza eta praktika politikoen berrikuste kritikoa ekingo deusagu.

ZERTZEAN



ILLART GUMUZIO

Gaia jarrita: "Eizu Kiñu"

1

Aspaldidanik hemen gazteok gendun leku baten falta lokalak eta tabernak ziran aisialdiko oferta denbora luzez egon ostean herrian buelta ta buelta herrian behar gendun lekua bertan topau dogu eta.

2

Egun batean barrura sartuz hartu genuen estalpe egunez egun atontzen jardun sei hilabetez jo ta ke eguneroko alkarbizitan norbanako ta alkarte leku huts zana danon artean behar da kolorez bete.

3

Hile luzetan lan ein ostean apirilan jarriz ginda aurkezpen hartan, askok galdera: lan eiteko era zein da? Asanbladetan autogestioz bizi garela jakinda eguna ondo ospatu gendun guztiok Kiñu eginda.

4

Jarri nahi dogu dana ederto zabalduz geure jarduna danok topera aprobetxatuz esku artean doguna alperkeri ta atxaki barik da lan eiteko eguna hori dala ta pintau dagigun batera etorkizuna.

5

Apurka-apurka programazio anitza eiten gagoz gu hogeitalauan kontzertu bi daoiz Kauta ta Emonen kargu hogeita hamaikan autodefentsa feminista ezin galdu lagun ez zaitez etxean parau animatu eta erdu!

6

Gaur egunean Arratiako gazteok indartsu gatoz ez da hainbeste gazetxe egon hemen sekula bez, inoz ta parte hartu gura badozu ez zaitez gelditu gogoz hurbildu zaitez bildurrik barik ateak zabalik dagoz.

BEGI TXINDORRA

Bazan behin lurralde bat non gizonak politik ziran eta andrak indartsuak. Hau ipuin bat dala pentsetan dabe askok, baina munduan mundu asko dagoz eta danak dagoz mundu honetan. Beti egon dira andra indartsuak, ez dago urrunera joan beharrik: gurean, andrak indartsuak dira argazkian ikusi daiteken moduan.

Neska indartsuak egon badagozala erakutsi dau batek baino gehiagok Zeanurin. Eta ez dirala salbuespenak ikasi dabe askok autodefentsa feminista tailerretan. Bai, printzesa gitxi dago Arratian, eta dagozan apurak laster jantziko dabe txandala, hemen andrak indartsuak dirala jabetuta. Printzesa soinekoa erantzi eta txandala jantzen lagunduteko desprintzesatze tailerra dago Igorren maiatzaren 17an eta 24an.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakaia
T. 94 631 50 39
Hilegatu Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza

Tania Fernandez Santiago
COL. 1718

www.gruposasobide.com Tel: 94 657 54 50

IGORRE

Ormazabaleko egoitza nagusiaren aurrean protestan kaleratuak



Langileak protestan.

Erredakzioa

Ormazabal-Velatia enpresek Igorren daukan lantegitik bost behargin kaleratu zituan abenduan. Enpresek kaleratzeak bidegabeko kaleratze moduan ordainduko ebazala adierazo eban hasikeratik eta hiru beharginek dirua onartu eban, baina beste behargin bik ez eta euren lanpostuetara itzultzea eskatuten dabe. Hori dala eta, egunero, 10:30etik 16:00etara, Velatia taldeak Bizkaiko zientzia eta teknologia parkean, Zamudion, daukan egoitzearen aurrean alkarretaratzeak egiten dabez. Bertan, kaleratuak, sindikatueta ordezkariek eta Ormazabal taldeko beharginak batzean dira.

Urtailean berregituraketa bat egon zan Ormazabalen eta kontratu hausteko lan erregulazi-

noko espedientea aurkeztu eban enpresa zuzendaritzaek. Horren arrazoia lan faltea ez dala dino Luis Migel Garcia LABekoak eta "enplegua malgutzea" egon daitekela atzean uste dau.

Mobilizazioak

Zezeilan Igorreko lantegiko atarian konzentrazioak egiten hasi ziran beharginak eta hiru egunetan ordubeteko lanixtea egin eban. Martian, egoitza nagusiaren aurrean konzentrazioak egitea ebatzi eban. Mobilizazioak "hau danau konpondu arte" jarraituko dabela dino bere lanpostua berreskuratzeko burrukan dagoan beharginetako batek.

Ormazabalek publikautako atzen kontuen arabera, 2012ko balantzean, enpresek 41 milioe banandu zituan dibidendutan.

ZEANURI

Arratia Bizirik-ek Xorokil kanterearen ustiapen proiektua gelditu gura dau

Arratia Bizirik talde ekologistaren arabera, Xorokil kanterea zabaltzeko jarduera proiektua aurrera doa eta jarduera lizentzia baino ez da falta martxan ipinteko.



Xorokilgo kanterea.

Erredakzioa

Alegazioak aurkezteko epea hilaren 20ra arte da. San Isidro egunerako honen gaineko informazioa zabaldu eta 19:00etan konzentrazioa deitu dau Arratia Bizirik-ek Zeanurin.

Arratia Bizirik-ek jakitera emon dauanaren arabera, kantera hori orain 40 urte ustiatu zan eta bertan 3 hektarea atera zituen. Gaur egungo proiektua, barriz, 34 hektarea ustiatzekoa da eta eremu zabala izateaz gainera, balio ekologiko handikoa be bada. "Gorbeiaiko Parke Naturalaren mugan dago eta Urkiola eta Gorbeiaiko Parke Naturalen korredore ekologikoaren zati handi bat hartzean dau" salatuten dabe. Bertan, katalogutako eta katalogau bako hainbat landarek (pago, leizar, hagin, gorosti, elorri, astigar, haretx...) eta animaliak (*Lutra Lutra*, *Mustela Lutreola*, saguzarrak, igelak...) daukie

bizilekua.

Gainera, interes arkeologikodun hiru kobazulo dagoz inguru honetan, tartean Historiaurrean hileri moduan erabilitako bat. Ur edangarria daukan iturburu bat be badago, kanterea ustiatu ezkeru kutsatuko litzatekena.

Baliabide naturalak kudeatzeko eredu honen kontra agertu dira ekologistak, "natura ez da saltzen" dinoe.

Bertako ekonomian eragina

Eraikuntzak behera egin dauan honetan, kanteren produktuaren eskariak be behera egin dau eta beste kantera bat ustiatzea zementogintzan, produktzioa eta lanpostuak gitxitzen dabizanean ez daukala zentzurik dinoe Arratia Bizirik talde ekologistatik.

Zentzurik ez izateaz gainera, eragina be izango leuke bertako ekonomian Xorokilen ustiapenak. Batzuek irabaziak lortu arren, martxan da-

gozan proiektu sostengarri batzuen bideragarritasuna arriskuan ipiniko litzateke, turismo sostengarriaren aldeko apustua bertan behera itxiz. Eta "zelan eragingo dau abeltzantzako ustiapenetan eta baliabide zinegetikoetan?" itauntzen dabe Arratia Bizirik-ekoak.

Alegazioak

2008ko urtailaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean publikau ziran Zeanuriko Arau Subsidiarioen aldaketak Xorokil kanterea handiago egiteko. Ingurumen-inpaktuaren adierazpena be onartu zan 2012an. "Foru Aldundia baimena badago eta orain jarduera lizentzia baino ez da falta" azaldu deusie BEGIRURI Arratia Bizirik-ekoak. Alegazioak hilaren 20ra arte egin daitezke eta Ekologistak Martxan taldeagaz ipini dira kontaktuan Arratia Bizirik-ekoak, hango abokatuakaz alegazioak aurkezteko asmoz.

www.begitu.org

publizidadea
94 631 73 14 eta 649 979 115



Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

INFORMATIKA



EKIPOEN SALMENTA
ERREPARAZIOAK
IKASTARROAK

Inaugurazioa
ekainak 2

ELEXALDE 2, (UDALETXE ONDOAN) - IGORRE

www.arratek.com

arratek@arratek.com

BEDIA

Holandarantza bizikletaz abiatu da Julen Gabiria

Erredakzioa

Han goitik itsasoa ikusten da liburuaren nederlanderara itzulpena aurkeztera, Holandara bizikletaz joango da Julen Gabiria nobelearen egilea. Itzulpena Aitziber Renteriak eta Henrike Olasolok egin dabe.

Gabiria, maiatzaren 14an abiatu zan Gernikatik Holandarantza eta 1.500 km. egin beharko ditu bizikleta gainean liburuaren itzulpena aurkeztu aurretik. Gernika-Lumoko Astra kulturarako fabrikatik abiatu zan eta herritar batzuk, bizikletea hartuta, lehenengo kilometroak egin ebezan idazleagaz batera.

Txirrindularitza ardatz

Han goitik itsasoa ikusten da eleberria, Gino Bartali izeneko txirrindulari baten inguruan eginda dago. Haren jaioterrian kokatuta eta II. Mundu Gerran girotuta, Italiako herri baten bizi diran pertsonajeen bizitza kontetan dau.



DIMA

Bertso bazkaria

Erredakzioa

Dimako Bertso Eskoleak, Luis Prieto Lagun Taldeak eta Dimako Guraso Elkarteak antolatuta, bertso bazkaria egongo da maiatzaren 31n Dimako frontoian. Beñat Gaztelumendi eta Agin Labururen bertsoakaz gozatutako aukerea egongo da bertan.

Bertsolari bi honeek 2013ko Bertso Txapelketan parte hartu eben eta Beñat Gaztelumendi finalera heldu zan.

Bertso bazkarirako tiketak Dimako Herriko Tabernan dagoz salgai 12 eurotan.



DIMA

Kontzertu Punk-tualak eta nekazal azokea, Nekazalpunk-en

Irati Urien

Laugarren Nekazalpunk, Diman egiten dan jaialdia hilaren 17an izango da. Aurten be Sugoi Gazte Asanblada eta Zorrontzako jentearen artean antolatu da egitarau konpletodun eguna. Edizino honetan joko daben musika taldeak Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak dira; tartean Arratiakoak. Berziklatzeko edalontziak eroan behar dira eta akanpetako lekua egongo da gura dauanantzat. Kartelean ipini dabenaren arabera, gobernazeinak izango ei dozak/n. Hauxe programea:

10:30ean nekazal-artistau azokea.

11:30ean zantantzarrak.

12:00etan umeentzako jokoak.

12:30ean Orkresta txarangeagaz Poteo-Kalejira-Punk.

14:30ean Paella begetarianoen Txapelketea (parte hartuteko Dimako Herriko Tabernan apuntatu taldearen izena eta persona kopurua. Epea, maiatzaren 16ra arte. Mahaia eta aulkiak ipiniko dira).

17:30ean Kontzertu Punk-tualak (debalde). Lastuerkas, Barbiturikos, Escupitajos, Pleonakis Plektos, Rombos Negros, Punto Muerto, Maldita Sea, Primeros Auxilios, Poliputos, Al infierno en goitibera, Mal Del Pan, eta DJ Puto Gus.



AREATZA



Ezkabako kartzela.

Iragana ez ahaztuteko dokumental bi maiatzean

Erredakzioa

Errepublikasasoiko maistren eta Francoren gartzeletatik egindako igesaldi handi baten barri emongo dabe Areatzan proiektuak diran dokumental bik, oroitzen historikoa bizirik mantenduteko helburuagaz. Hilaren 16an, Areatzako Emakume Foroak antolatuta, 2014ko Goya saria irabazitako *Las maestras de la Republica* dokumentala egongo da ikusgai, eta 22an, Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, *Ezkaba* dokumentala eta ostean Koldo Pla Larramendi, Nafarroako Historia Oroitzapenerako Txinparte alkartekoaren berbaldia.

Las maestras de la Republica dokumentalak, Errepublikako maistrak itxitako aztarnak ikusgai jarten dauz. Maistra honeek andren eskubideen aldeko burrukan, konpromiso handiko andrak izan ziran.

Francoren kartzeletatiko igesaldia

1938ko maiatzaren 22an, 795 preso errepublikarrek Francoren Ezkabako kartzeletatik iges egin eben. Hiruk baino ez eben muga pasau, 582 harrapatu zituen eta 210 hil. Igesaldi honen urteurrenaren egunean bertan horren barri kontetan dauan *Ezkaba* dokumentala ikusi ahal izango da, arrastiko 18:30ean, Udal Aretoan.

ARRATIA

Gure irakurleen erdiak hiru edo lau hizkuntza dakiez

Erredakzioa

Gure inkesteari erantzun deusien erdiak oinarriko maila baten behintzat, hiru edo lau hizkuntza dakiela dinoe. Beste % 40k bi hizkuntza dakiala erantzun dau. Lau hizkuntza baino gehiago dakiala % 10ek erantzun dau.

Euskaldun guztiak elebidunak gara gitxienez eta gaur egungo bizimoduak beste hizkuntza askoz ipinten gaitu kontaktuan. Inoz baino aukera handiagoak dagoz, hizkuntza sortatxo bat, oinarriko mailan behintzat menperatzeko.

Kirola

Sano mundu zabala da kirola,

irakurleak ze kirol egiten daben jakin guran, oraingoan hurrengo itauna eta erantzun posibleak proposatzen doguz:

- Zuk zein kirol egiten dozu?
- 1-. Futbola, pelotea, mendia edo bizikletea.
- 2-. Herri kirolak, atletismoa edo olinpiadetako kirolen bat.
- 3-. Aerobica, surfa, jantzak, arrauna, urpekaritza...
- 4-. Ez dot kirolik egiten.



KIRRU • ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 GORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-40-54

SESOREAK basolo Emaldi
Abokatuak
• 620. 57.86.04
• asierabasolo@hotmail.com
• Bilbao-Zeanuri

Los Chopos
neurriera egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nagusi) Tel.: 94 430 40 94
Esposizioa eta fabrikea Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, B1, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 673 75 52
48140 GORRE (Bizkaia)
garantxe@evokah.net

IGORRE

Aisialdirako kultura arteko andren espazioa sortu da

Erredakzioa

Hemeko eta urineko andrak batu dira hilean behin urrietatik maiatzera arte Igorren. Herrian, biztanle etorkinen kopurua asko hazi zala ikusita, kulturartekotasunaren alde lan egiteko eta bizikidetzaz sustatzeko, Kultura Arteko Topaketak ipini ebazan martxan Udalak, Sortzen kontsultoriaren eskutik. Topaketa honeetan, edade guztietako hogei bat andrak hartu dabe parte: Sahara, Maroko, Errumania, Bolivia eta Kolonia jatorrikoak, zein Arratiakoak, Zeanuri, Artea, Dima eta Igorrekoak, hain zuzen be.

Arrazakeriari aurre egiteko kezka

politikoa egoan proiektu honen atzean, eta Igorreko herriak aniztasuna aberastasunerako bidea dala konturatzea eta arriskutzat ez hartzea gura eban Udalak. Kanpoztarrak eta bertokoak hartu-emonetan ipinteko sortu zan ekimen hau, batzuk zein besteak "euren irletan bizi ziran eta", Miriam Herbon proiektuaren koordinatzailearen arabera.

Proiektua arrakastatsua izan dala dino Herbonek. Errespetuan, ondo hartzean eta alkarren zaintzan oinarrituta, parte hartu daben andrak lagunak dira orain. Dana dala, "honen filosofia ez da lagun minak egitea, alkarrenganako errespetua baino".

Jaietan munduko arrozak

Filmak ikusi, herrialde desbardinatoko gastronomia ezagutu, zaintzaren eta etxeko lanaren balioaz eta herrialde desbardinatzen andren egoeraren gainean eztabaidatu, edota umoreari eta barre egiteari eskeinitako saioa, izan dira aisialdiko espazio honetan andrak batu dituen gaiak.

Igorreko jaietako paella lehiaketan be parte hartuko dau parte taldeak "munduko arroz" bategaz. "Han egongo gara danok eta parte hartu gura dauan beste edozein andra be hurreratu daiteke, taldea zabalik dago eta" dino Herbonek. Parte hartzeako, aurretik 637 305 675 telefonora deitu behar da. Arroza igorreztarrak konpartiduteaz gainera, andra sahararrak tea hartzera konbidatuko dabez hurrez hurrez diranak.

Uda ostean be, batzeako espazio honek jarraipena eukiko dauala dino Sortzen-ekoak.

DIMA

Uribe kostako umeak Arratia ezagutzen



Umeak edadekoakaz batera.

Erredakzioa

Dimako Claret Etxean Leioako Askartza Claret ikastetxeko 5. mailako eta DBH 1eko umeak egiten dabez egonaldiak eta Dimako Arratia egoitzara joaten dira bisitan, edadeko jentearen jakiturari esker, bizitzarako gauzak ikasteko. Arratia eta Arratiako euskera be ezagutzen dabe Diman.

Arratia egoitzan bizi dan edadeko jenteari, egunerokotasunetik aterateko balio deutzaz bisita honek eta pozik hartzean dabez Uribe Kostako gaztetxoak. Urteak dira programa hau, arrakasta handiz antolatuten dauala Claret Etxeak. Askartza Claret ikastetxeko umeak, Claret Etxean astebete pasetan dabe. Bertako lan taldeak, ikasleak egiten dabez ekintzai buelta bat emon gura izan eutseen. "Eta holan gure ekintzak Arratiara zabaltzea bururatu jakun" dino Alexander Oiarzabal Claret Etxeko koordinatzaileak. Dimako udalaxeagaz ipini ziran kontaktuan eta Arratiako egoitzara joatea pentsau eben. "Proposamena egin eta beso

zabalik hartu ginduezan" dino. Bisita honek, geletan lantzeako gatxagoak diran aspektu batzuetan sakontzeko aukerea emoten dabela dino Oiarzabalek; hartu-emonak, askatasuna eta autonomian sakontzeko, hain zuzen be.

Hamabi talde

Aurtengo bisitak aprilan amaitu dira eta Uribe Kostako 12 talde pasau dira Dimako Arratia egoitzatik: 5. mailako sei talde eta DBH 1eko beste sei. Lehen Mailako Hezkuntzako 5. mailako programazioak euskera eta euskalkiak landuten ditu. Umeak txotxongilo emonaldi bat prestatu eben eta nagusiakandik "jakituria, istorioak eta inportanteena, aratiera" jaso dabez. Bosgarren mailakoen hurrengo bisitak 2015eko zezeilan hasiko dira.

DBHko lehenengo mailako beste sei talde joaten dira, hau da beste sei aste programa honetan. Honeen bisitak abenduan eta urtailan izaten dira eta Gabonetako ekintzetan lagunduten dabe. DBHko lehenengo mailako programazioan hartu-emonak landuten dira.

ARRATIA

Konsumoa landuko da Aste Berdean

Erredakzioa

Konsumo iraunkorra landuko dabe Eskolako Agenda 21egaz aurtengo Aste Berdean. Arratiako Udalen Mankomunidadeko Ingurumen Zerbitzuak eta Arratiako eskolak hainbat ekintza antolatu ditue bederatzigarren aste berde honetarako, jentek Eskolako Agenda 21en egin dan "lan handia" ezagutzera emoteko helburuagaz.

Holan, aste osoan, hilaren 26tik 30era, Igorreko Kultur Etxeko Erakus-

keta Aretoan, Eskolako Agenda 21ek bederzti urte honeetan egindako ekimenak erakutsiko ditu, panel eta ikusentzunezkoen bitartez. Arratiako ikastetxe guztietako erakusketatxoak egongo dira bertan, ikasleak landutakoa erakusteko. Eskolako ortua, konpostajea, energia, bio-niztasuna, sendabedarrak, energia, birziklapena eta bertoko produktuak dira horreetako gai batzuk. Aktibatu +ren aurkezpenak, Gorbeialdeko produktuen gaineko mahai-inguruak eta konpostajearen egunak osotuko dabe Aste Berdearen egitaraua.

Konpostaje egunean, Mankomunidadeak erakusmahai bat ipiniko dau eta konposta bananduko dala bertan azaldu deutso BEGITURI Aitor Uriguen Mankomunidadeko Ingurumen Zerbitzukoak. Konposta etxean egiteko interesa daukienak eta orain-

dino izena emon ez dabenak, izena emon ahal izango dabe bertan.

Egitaraua

Maiatzaren 26tik 30era, 10:00etatik 20:30era, Igorreko Kultur Etxeko Erakusketan aretoan erakusketea, "9 urte Eskolako Agenda 21egaz". Arratiako ikastetxe guztien erakusketatxoak, panelak eta ikusentzunezkoak.

Maiatzak 27, martitzena 19:00etan, Aktibatu + ekimenaren aurkezpena. Igorreko Kultur Etxean.

Maiatzak 29, eguna 19:00etan, Gorbeialderen eskutik mahai-inguruak: "Gorbeialdeko produktuak: bertokoak, iraunkor eta naturalak". Igorreko Kultur Etxean.

Maiatzak 30, barikua Konpostajearen eguna. Goiz eta arrastiz, Lasarte Parkean.

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Orde
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 64 28

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefono: 649 86 95 36

sem
Gogoratu leku barrian gagozala
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Telefono: 94 631 92 94 • semmodul@hotmail.com

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA: LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN ONDASUN HIRIGIZINEN ASIGURUELAN
Beltra Arria, 3. Floor. 94 673 71 61 - Fax: 94 673 64 61 - 48140 IGORRE

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Gorbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTSU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
Kameta eskola zain ondoan
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unozak@euskalnet.net

EUSKAL JANTZAK

Erromeriaren berbizkundea

Euskal Herriko musika tradizionala, jazz-a eta musika klasiko edo idatziari hamabostaldi bana emongo deutso AKKBk. Musika tradizionalaren hamabostaldia, Aiko taldeak antolatutako folk jardunaldiak amaituko da. Honeen helburua jenteak euskal instrumentuak ezagutzea eta jantza egitea da.



Aikoren erromeria Plateruenean.

Erredakzioa

AKKBkoak Aiko taldeagaz batera, Areatzan erromeria egun bat sortu gura dabe maiatza inguruan. Aurten proba egiten doaz, "baina gure helburua da, hemendik urte batzuetara, 17:00etatik gaueko hamabiak arte egotea taldeak jotzen eta jentea jantza egiten" dino Asier Garcia AKKB eta Aiko-koak.

Musika tradizionalaren hamabostaldi honetan, ardatz nagusia txistua da nagusientzat, eta horretarako kontzertu bi ekarri dabez Areatzara: bata Arozenatarrena eta bestea Bilboko Txistu Bandaren kontzertua, atzeratu egin dana eta jardunaldien ostean izango dana. Kontzertu bi honek, jentek txistua "beste begi batzuek ikustea" gura izan dabe antolatzaileak.

"Txistulariak kalejiran imajinetan doguz beti, betiko soinua daukagu danok belarrietan, eta hortik gainera

beste txistu era bat badago. Betiko hori be oso ondo dago eta ahaleginak egiten dira hori hobetuteko, baina Arozenatarrek txistuari buelta bat emon deusie, txistua joteko moduari, ikuskizun bat montau dabe" azaldu dau Garciak. Bilboko Txistu Bandak emongo dauan kontzertuak be errepertorio desbardina izango dau, modernoa. Bertan, Nerea Zuloaga abeslariak eta Mariano Santamaria painojoleak parte hartuko dabe eta Igor Menika egongo da jota jantzatzen... Txistua zelan erabilten dan gaur egun eta ze errepertorio dagoan ezagutzeko aukerea egongo da.

Umeentzako kontzertuak jago kienean, euskal instrumentuak ezagutu daiela helburuagaz, Hala Dzipo taldeagaz batera kontzertu didaktiko bi jo dabez Areatzan. Bata *Maddi eta Txalaparta*, izan da, txalapartaren ingurukoa. Kontzertu honetan, 0 eta 5 urte bitarteko umeak

txalapartea ikusi, ikasi eta entzuteko aukerea izan dabe. Beste kontzertua, 5 eta 10 urte bitarteko umeentzatzat, Abeltxuri taldearen kontzertua izan da. Kontzertu honetan instrumentu guztiak aurkezten dira: trikia, gitarrera, txistua, dultzaina, albokea, adarra...

Astegoienean folk jardunaldiak

Maiatzaren 17 eta 18an, folk jardunaldiak izango dira. Bertan, txistulariak, euskal fanfarre bi, erraldoiak eta aurten 40 urte beteten dituan Arantzarte jantza taldea egongo dira. Zapatu arrasti eta domeka goizean, Aiko taldeak jantza tailerrak emongo ditu.

"Ez daukagu aurrekonturik eta aprobetxau egin dogu Aiko taldearen jantza astegoienean. Alde batetik, Aiko taldetik gogoia geunkan Areatzan zeozer egiteko, Udalak instalazioak ixten deuskuz eta" dino Garciak. Lehenengotik erromeria egitea

pentzau eben, biribilteko Bizkaiko Gaiteruak ekartea eta hori bul-tzatzeko parrillada bat egitea. Eta goiza AKKBren bitartez betetea pentzau eben gero.

Antolatzaileen ustez Arratian, 80 lagun inguru alkatuko dira jantzan egiteko. Areatzan erdigunea oinezkoentzat denez, leku aproposa dala dino eta Hotelak erretasun guztiak emon deutsezala. "Gozo egotea inportantea da eta leku egokia topau dogula emoten dau".

Jantza tailerrak

Aiko taldearen aspaldiko ekimena da jantza ibiltaria eta hori hasi ziran tailer itineranteak herriz herri egiten. Gero, beharizana ikusita, urtik ekainera arteko ikastaroak egiten hasi ziran, horregaz batera ikusi eben jentek praktikau ahal izateko erromeriak egitea komenigarria zala eta Plateruenean hilerro erromeria egiten hasi ziran. Gero, gai bateri lotutako ikastaro monografikoak sortu zituen, Areatzan egindako jotearen ingurukoa tartean. "Sarritan, eguneroko eskoletan zerbaist landuteko astirik ez, edo beste barik leku batekoak eta besteak alkatzeko, eta alkarregaz jantzan egin eta ikasteko ekin geuntsan astegoienean ikastaroak antolatzeari" dino Sabin Bikandi Aikokoak. Aurreko bat Zarautzen izan zan, Katalunian be egin eben beste bat eta Kataluniako talde bat etorri zan bertako jotea irakasten, gero Areatzan jotearen ingurukoa eta oraingoa, Areatzan be bai, korruan egiten diran jantzen ingurukoa izango da: mutil jantzak eta jauzien gainekoa, hain zuzen be. Claude Iruretagoiena iparraldeko maisuak emongo dau jauzien inguruko tailerra eta Patxi Labordak mutil jantzen ingurukoa.

Tailerrok irekiak dira eta edonork hartu ahal dau parte. Horretarako, baxtokeko maila bi dagoz: oinarrikoa egun horretan lehenengo kontaktua daukientzat eta maila goragoko beste bat zerbaist dakientzat.

Arratian, gauza barria dira jauzi jantzak, globalizazioak ekarritako fenomeno bat. "Gure gurasoak eta, jauziak zer ziran jakin be ez eben jakin. Berbea be ez. Hau izan da

Jauzi jantzak eta mutil jantzak talde jantzak dira, "tribuko jantzak"

Txistulariak, fanfarreak, eta erraldoiak ibiliko dira Areatzan

BOXPAL
618 59 81 71
Pintura lanak
Hurgintza
Instalazio elektrikoak -oberiak
Ishio eta steen konponketa
Pertsona konponketa
Igeltzerotza
E-posta:boxpalboxpal@yahoo.es

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMDA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

94 631 60 08 • email: info@arantzia.com
ARANTZIA
Landegian O Jabetzen!
Parruti Ugarrena 2 (pl. Añabiz Dorra) - Bilbo - www.arantzia.com

bbk

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Felix Mendizola, 3, 48530 LEMDA, Bizkaia
Tel: 609 482 830 • fax: 609 206 717

946 319 008
658 195 091
Sartu eta ikusi!
GALANTA
zure barruko arropa
M. JOSE
barrutik jantzen zaitu
Agirre Lehendakaria 23
48140 IGORRE
galanta@hotmail.es

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIBO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA
Graduazioak
Ikusmen terapia
Ikusmen gibatua
Begi tontsinoak
Lentillen adaptazioak
Kiroletarako betaurrekoak
Sabin Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 • olaetxeoptika@hotmail.es



Garcia, Laborda eta Bikandi.

apur bat kanpotik etorri jakun jantza klase bat, globalizazio kontua izan da igual. Euskal Herri mailan baina globalizazioa. Modan ipini zan kontu hau eta egia esan geure helburua danez jentea jantzan ipintea eta jantzea zabaltzea, ba horreek irakasten hasi ginan" dino Bikandik.

Jantza honek ez dira fisikoki asko eskatzen daben jantzak eta edozeinek, edozein edadetan egi-

teko modukoak dira, burua erabili behar da, entreteniduak dira... Talde jantzak dira, izatez "tribuko jantzak".

"Tribuko jantzak"

Jauzi jantzak eta mutil jantzak antzekoak dira Bikandiren esanetan, "lehengusuak dira, tronkal beretik datoz, egitura antzekoak daukiez eta zuztar bardina. Gero jantzakeran, estiloan, apainduretan, dago

desbardintasuna baina nahiko antzekoak dira".

Mutil jantzak ez dira mutilentzat bakarrik. Izan be, gaur egun jantza gehienak andrazkoak dira. "Lehenago jantzak gizonen esparrukoak ziran, mundua zan gizonen esparrua eta jantzak be bai. Eta hori aldatuten doan heinean, hori be aldatu egin da. Gaur egun, jantzan gizonak eta andrak parte hartzean dabe eta mutil jantzetan be, antzekoa pasetan da. Ondino be Baztannen horren gorabeheran istilutxoren bat egon aren" dino Bikandik.

Arratiako tailerretan batez be andrak hartuko dabela parte uste dabe antolatzaileak. Dana dala, astiro-astiro hau aldatzen doala dino Bikandik, gero eta gizon gehiago hurreratzen dirala, normaltze kontua dala.

Jantza tutorialak DVD-an

Aiko taldea jotearen inguruko DVD bat dabil prestatzen datorren urterako. Orain arte, batez be CDak kaleratu dabez, baina jantzearen inguruan zentretan danez euren proiektua, bideoan egitea egoki jo dabe. Jantza transmitiduteko bideo didaktikoa izango da hurrengo ikasturtean kaleratuko dabena.

Egitaraua

Maiatzak 17, zapatua

10:00etan, txistulari, tronpeta eta tanborren alboradea.
11:00etan, Arratia Musika Eskolako fanfarrea.
12:00etan, Deustu, Sestao eta Areatzako erraldoien kalejireta eta jantzaldia plazan Patxi Labordak gidatuta.
13:00etan, Arantzarte Dantza Taldearen emonaldia.
13:45 inguruan, Hala Dzipo fanfarreagaz tabernaz taberna.
15:00etan, partaideentzat bazkaria.
17:00etan, Aiko taldearen tailerren hasikerea. Tailerren orduetgia: 17:00etatik 19:00etara eta domekan 10:00etatik 13:00etara.
19:00etan, Aiko taldearen erromeriaren hasikerea.
20:30ean Bizkaiko Gaiteruak eta amaituteko Larrain jantzea.
21:00ak aldean parriladea, sagardoa eta ardaa gura daben guztientzat. Goizeko partaide eta Aikoko tailerreko partaideentzat doban besteentzat 3€.

Maiatzak 18, domekea

10:00etan, gaiteruen kalejireta.
10:00etan, tailerren hasikerea. Oinarrizko maila udaletxean eta goi maila plazan. Baztango mutil jantzak.
13:00etan, jantza poteoa herritik.
14:30ean, bazkaria hotelean. Tailerrekoak doban besteak 15 euro.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI BAI

EKITALDI POLITIKOA
HIZLARIAK: Joseba Gezuraga eta Josu Murgia
MAIATZAK 18 Igandea
LEMOA
Intzuntza auzoko plazan 12:00etan

EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki

FUTBOLA

Arratia B-k denporaldia amaitu dau

Ainhoa Duñabeitia

Emoizta txarrak izan dabez gure taldeak. Gizonezkoen lehen taldeak atzen astegoienetan izan dituan partiduak galdu ditu. Maiatzaren 4an, 2 eta 1 galdu eban Begoñaren kontra. Hurrengoan, maiatzaren 11n izan eban neurketan be ez ebezan 3 puntuak etxera ekarri. Lekeitioren kontra jokatu eban arratiarrak; 1 eta 0 galduz. Halanda be, bosgarren postuan jarraitzen dabe eta hurrengo norgehiagokea etxean izango dabe San Ignacio SDren kontra.

Gizonezkoen bigarren taldeak agur esan deutso aurtengo denporaldiari. Saikapeneko 6. postuan amaitu dau 30 puntugaz. Hilaren 4an Lemoan jokaturako neurketan 3 eta 1 galdu eban arratiarrak. Hilaren 10ean etxean jokatu eban atzen norgehiagokea Gernika Sportingen kontra. Irabazten hasi ziran arren bardintutea lortu eban gemikarrak. Azken emoitzea banako bardinketea.

Andrazkoen taldeak Euskal Kopako lehenengo neurketea jokaturako dau hilaren 18an arrastiko 18:30ean Igorreko Urbieta futbol zelaietan.



Arratia taldea.

TXIRRINDULARITZEA

Meritu handiko 6. postua Julen Zuberok

Etapa bi irabazita, lehenengoa eta laugarrena, hain zuzen; seigarren izan da Julen Zuberok (Powerade) txirrindulari lemoaztarra Titan Desert 2014ko saikapen orokorrean.

Erredakzioa

Ondrej Fojtik txekiarrak (X Sports Cannondale) irabazi eban proba eta Milton Ramos eta Oscar Pujolek osatu eban podium-a. Zuberok ondorezik egon zan hirugarren etapetan, minutu asko galduz. Laugarrenetarako, barriz, guztiz errekupeuta egoan, etapea irabaztean erakutsi eban moduan.

Basamortuan zehar 700 km. gogor horreek egiteko 27 ordu 40 minutu eta 34 segundu behar izan eban Julen Zuberok. Horri esker seigarren amaitu eban, irabazlearen 01:01:31ra. Dana dala, etapa bi irabazita, gitxi antzean moduan geratzen da seigarren postu hori. Hirugarren etapetan ondorezik parau zan lemoaztarra. "Deshidratazio bat edo euki neban, tripak txarto. Taldekide baten laguntzeagaitik ez balitz,

ezin izango nintzan helmugara heldu" azaldu deutso BEGITURI Julen Zuberok. Dana dala, eta ezin zan bestela izan, etapa bi irabazita balorazino positiboa egiten dau Zuberok.

Edizino luze eta gogorrena

Hirugarren urtea da Julen Zuberok



Txirrindulariak basamortuan.

lasterketa honetan parte hartzean dauala eta datorren urtean be, la-guntzea euki ezker, joango dala dino. "Han gagozanean beti esaten dogu ez garala bueltauko", baina bueltautakoan gehienak eretxia aldatzen dabela dino txirrindulariak, gogorra izan arren, sano lasterketa polita dalako eta bertan lagunak dituelako.

Beti gogorra, baina aurtengoa, orain arte egin dan ibilbiderik luzeena eta gogorrena izan dala onartu dabe antolatzaileak.

Errioxara

Lemoaztarraren hurrengo zitea, hilaren 16an hasten dan La Rioja Bike Race-n da. Hiru eguneko lasterketea da hau, Logroñon hasi eta Logroñon amaituten dana.

Urrietan, Madril-Lisboa non stop lasterketan be parte hartzeako asmoa agertu dau Zuberok.

Arratiako Musika Eskola

IKASLE BERRIEN MATRIKULAZIOA

Epea: maiatzean

- Infante kalea, 2. Artea
- Astelehen, asteazken eta ostiralak

10:00etatik - 13:00 arte

Tlfnoa: 94 631 73 52

- *Matrikulazioa posta elektronikoz:
arratia.musikaeskola@gmail.com

- Arratsalde, zentroetan

FUTBOLA

Futbol Kanpusa antolatu dau Arratiak neskentzat

Erredakzioa

Arratia Futbol Taldeak 13-16 urte bitarteko neska zuzendutako kanpusa antolatu dau. Kanpusa garagarriaren 7tik 11ra arteko astean izango da Igorreko Urbietako futbol zelaietan.

Izena maiatzaren 31ra arte emon daiteke futboludalekuak@cdarratia.com helbide elektronikoan edo 617 803 440 telefonora deituz. Izena emoten dauanak 90 euro ordaindu beharko ditu, Arratia taldeko bazkideak ostera 80. Hauxe da egunero futbolariak eukiko daberen programea. 09:00etan harrerea, 09:30ean entrenamentua, 11:00etan atsenda, 12:30ean arlo tekniko: nutrizioa, luzaketak, arautegia, futbolaren historia (egunero gai desbardin bat), 13:30ean, jolasak, igerilekua, 14:00etan amaierare.

BOLA JOKOA

Sailkapen orokorrean postu bat igon dabe Arratiako taldeak

Maite Arrizabalaga

Hilaren 10ean, Artaunen jokatu zan komarkaleko lehiaketako botaldia. Eguneko tiradea Bernagoitiko Mateo Astorekak irabazi eban eta taldeka Gisetzak. Lemoa aurrean ibili zan baina atzenean, bigarren postuan amaitu eban; Oba zazpigarren izan zan eta San Kristobal bederatzigarren. Halan ba, sailkapen orokorrean Arratiako hiru taldeak postu bat igon dabe. Lemoa orain laugarren doa,

Oba zazpigarren eta San Kristobal hamargarren. Bakarka Urko Izagirrek segiduten dau lehenengo postuan eta lehenengo doan arratiarra Obako Juan Mari Aurtenetxe "Tirpu" da hamabigarren postuan.

Hurrengo bolatokia Zornotzako "Gure Kirolak" zan baina ituginak dirala eta, ezin izango da han jokatu. Ordezko bolatokia zein izango zan ebazteko zozketea egin zan eta Boroako bolatokia izango da hurrengo hilaren 17an.



Bolalekua.

MENDIA

Kangchenjungaren totorrerantza doa Txikon

Erredakzioa

Dana ondo joan ezker, domekan, hilak 18, zapalduko dabe Kangchenjungaren tontorra (8.586 m.) Alex Txikonek eta bere espedizionokideak. Iparraldeko bide britaniarretik abiatu dira atzen zatiari ekiteko.

Lemoztarrak bere blogean azaldutakoaren arabera, taldea bitan zatituko da. Lehenengo taldean Txikon bera, Bielecki eta Sinev joango dira bidea zabalduten. Bigarren taldea egun bat beranduago, hau da hilaren 15ean, abiatuko da.

Beste plan aldaketa bat be badago. Txikon eta Bielecki-k hegoaldeko jaisteko asmoa daukie. Izan be, Carlos Soria beste alde horretatik doa gora eta lemoztarrak berba egin dau Soriagaz. Holan jaisteko euren materiala erabili eta bidea zelan dagoan komentau ahal izango dabela dino Txikon.

Berbaldia Diman

Hilaren 30ean ostera mendizale lemoztarrak "Beste era batera" titulupeko berbaldia emongo dau Dimako Gaztetxean arrastiko 19:30ean



Berbaldiaren kartela.

MARATOI TXIKIA

Maratoi Txikia bagilaren 1ean

Erredakzioa

Arratia Ikastolak eta Arratiako Institutuak antolatuten daberen Arratiako XXV. Maratoi Txikia bagilaren 1ean izango da. Edade guztietako kirolariak hartzean dabe parte Maratoi Txikian, edade baxotari egokitutako ibilbide bat eginez. Partaideak ez dira bakarrik Arratiatik etorriko, kanpoko kirolariak be etorten dira proba honetan parte hartzera.

Nagusiak Zeanuri-Igorre (11 km.) ibilbidea egingo dabe. Urtekera 10:00etan izango da Zeanuritik eta izen emotea Igorreko kiroldegian 08:45etik 09:15era edo Zeanurin bertan 09:15etik 09:45era. Igorretik Zeanurira

joateko autobusa egongo da 09:30ean.

1997tik 2001era jaiotakoak, Artea-Igorre ibilbidea egingo dabe 10:15ean urtenda. Izen emotea Arteako plazan izango da 09:30etik aurrera.

2002tik 2005era jaiotakoak barriz, Dima-Igorre ibilbidea egingo dabe Dimako plazatik goizeko hamarretan urtenda. Izena be plazan bertan emon behar da, 09:15etik 09:45era.

2006an jaiotakoak eta gazte-agoak, Igorreko eskoletan presatutako zirkuitua egingo dabe. Honek be 10:00etan izango dabe urtekera. Txikien izen emotea 08:45etik 09:45era, Igorreko kiroldegian izango da.



Igorretik Zeanurira autobusa jarriko da 9:30etan
ANTOLATZAILERAK: Arratia Baskiela eta Arratiako Institutua

<p>→ Nagusien - Mayoren</p> <p>IBILBIDEA - Negarriak: ZANURI-PLAZA - IGORRE (11 km.) ARTEA-IGORRE - Negarri de Soria (10km) DIMA-IGORRE - Negarriak IGORRE - Zeanuri (11km)</p>	<p>→ 57tik - 2001ra Jaiotakoak</p> <p>IBILBIDEA - Negarriak: ARTEA - IGORRE ARTEA-IGORRE - Negarri de Soria (10km) DIMA-IGORRE - Negarriak IGORRE - Zeanuri (11km)</p>	<p>→ 2002tik - 2005ra Jaiotakoak</p> <p>IBILBIDEA - Negarriak: DIMA-IGORRE (ibilbidea) ARTEA-IGORRE - Negarri de Soria (10km) DIMA-IGORRE - Negarriak IGORRE - Zeanuri (11km)</p>	<p>→ 2006an eta geroztik</p> <p>IBILBIDEA - Negarriak: ZANURI-IGORRE (ibilbidea) ARTEA-IGORRE - Negarri de Soria (10km) DIMA-IGORRE - Negarriak IGORRE - Zeanuri (11km)</p>
---	--	---	---

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatezkoa, herrikola

<p>Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre</p>	<p>Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea</p>
<p>Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio</p>	<p>I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre</p>
<p>Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza</p>	<p>Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri</p>
<p>J.B. Eguskiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa</p>	<p>Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima</p>

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatzeko zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

LIBURUA

Naia detektibearen kasu bat antzerkirako

Naia. Eskultore itsua titulupean Alvaro Rabelli, Naia detektibea protagonista daukan hirugarren liburua kaleratu dau. Oraingo honetan antzezlan formatoa dauka istorioak eta elebitan dago.

Erredakzioa

Atenea Linguistika Aplikatu zentroak argitaratu dau, Euskal Liburutegi Elebiduna bilduman, polizia generoko drama baltz labur hau.

Naiaren istorioak beharizan jakin batetik sortu zira dino egileak. Euskera irakaslea da Rabelli eta ikasleai irakurgai interesgarri eta mailakatuak eskeintzeko beharizantetik sortu ziran Naia protagonista

daukien istorioak. Izan be, euskera ikasle helduak umeentzako edo gazteentzako literatura izaten dabe irakurgaitzat, eta helduen interesak bestelakoak izanik, gazte literaturak ez ditu erakarten. "Beraz hasikeratik argi neukan sorta honetako protagonistak andrazkoa, gaurkoa, urikoa, gaztea baina heldua izateko bidean eta aldikako langilea izan behar ebal, nire ikasle gehienak diran legez".

Protagonista nagusia Naia Otolara detektibe bilbotarra da eta bere laguntzailea Margot. Biak bizi dira San Franzisko kalean alokatutako pisu baten, Alfonso eta Jonegaz batera. Naia ogibidez detektibea da, baina ez bokazinoz, beharrik ez eukiteak behartu dau horretara.

Gizarteari kritika

Oraingo honetan, Naiak, sexu langile diharduen andra gazte batzuen hilketak ikertuko ditu. Lan horretara behartuta dagozan andra etorkinen egoera eta gizartearen itxurakeria eta ustelkeria dira antzezlan honen hari nagusiak. Personaje eta giroa hur-hurrekoak, irakurleak gure musikea, literatura, historia, gas-

tronomia eta paisajearen gaineko aitametak topaiko ditu.

Naiaren istorioetan antzematen diran zeharkako gaiak, personajeen arteko sexu tensinoa eta euren hartu-emon personalak, etorkinen eta andren egoera, gizartearen ustelkeria, krisialdi ekonomikoa eta bizimodu modernoaren gorabeherak dira.

Rabelli, Zertuko kidea

Alvaro Rabelli Yanguas (Basauri, 1969) irakaslea, ikertzailea eta idazlea da. Egun, Miranda de Ebroko Hizkuntz Eskolan irakasten dau euskera eta hainbat liburu idatzi ditu didaktika eta euskal literaturearen gainean. Elkar Argitaletxeak argitaratu ditu *Naia Chinatown inguruan* eta *Naia India gorrietan*, Naia detektibearen aurreko istorioak.

Alvaro Rabelliran beste obra batzuk, *Egurrezko hankak* (Labayru, 2006), *Odisea* (Gero, 2006) eta *Lotsati. Ilunpetik argira* (Alberdania, 2012) dira.

Rabelli, BEGITU hamabostekaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarreko zuzendaritzako kidea be bada.

LEHIAKETEIA

Argazki lehiaketea**Erredakzioa**

AKKB-k I. Argazki Lehiaketea antolatu dau. Lehiaketa honetan edozeinek hartu ahal dau parte; horretarako ez da AKKBko bazkide izan behar eta. Gaia "Mendi tontorrek, mendi tontoretara edo mendi tontoretatik" izango da eta lanak bialtzeko epea zabalik dago abuztuaren 31ra arte. Argazkiok kultura.areataza@gmail.com helbide elektronikora bialdu behar dira, mezuan egilearen izen-abizenak eta kontakturako telefono bat ipinita.

Euskarri digitaleko argazkiak bakarrik onartuko dabez lehiaketa eta argazkilarik bakotzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal ditu. Egileak argazkiari izenburu bat ipini behar deutso eta azalpentxo bat eskertuko dala dinoe antolatzaileak; non eta zein egoeratan atera dan argazki hori, esaterako.

Saria

Sari bat baino gehiago egongo da eta argazki irabazlea, 2015 urteko AKKBren egutegiaren azalean agertuko da. Epaimahaia lau lagunek osotuko dabe: Lamino Mendi Klubeko lagun bik eta beste argazkilarik profesional bik. Argazkiaren alde teknikoak kontuan hartuko da saritua aukeratzeko orduan.

Lehiaketara aurkeztutako argazkiak, AKKBk bere ekintzetarako eta argitalpenetarako erabili ahal izango ditu.



Liburuaren azala.

KONTZERTUA

Kherau taldeak Aukhera diskoa aurkeztuko dau**Erredakzioa**

Boskote bizkaitarrak bere bigarren diskoa *Aukhera* (Gaua Records, 2014) aurkeztuko dau Lasarte Aretoan maiatzaren 23an, 20:00etan. Kheraukideak kontzertu berezia eskeini gura dabe. Izan be, hainbat kanta bari joko dabez lehenengoz jentaurrean.

Folk talde barritzaileak ez dau bakarrik etorri gura geurera. Horretarako, diskoaren grabaketan parte hartu eben hainbat kolaboratzaile oholtza gainera izango dira kon-

bidatuak; besteak beste, Arratiako AK-37ko neskak eta Lander Zabala Lemoako panderojolea.

Diskoaren 14 kanta konposatzean ez da egon muga kreatiborik ezarri dauan estilorik. Horregaitik, *Aukhera* ez da publiko zehatz bateri bideratutako proposamena, edozein entzulek gozatu daikena baino. Gainera, artisauro-produktzioa izan da *Aukhera*, guztiz esperimental. Alde batetik soinu erakargarria lortu gura izan dabe, baina bestetik, egiazkoa, organikoa eta zintzoa.

Egileen arabera, *Aukhera* disko barria "erditze kolektiboa da. Odoltsua, mingorra, luzea. Hestetatik idatzitako akordeak, ekiaren egusentari begirako hausnarrak, eta taberna-zulo giroko alkarriketa-pasarteak. Esku-hartzea behar izan dauana eta arrakalak sortu ditua. Alea jaso orduko, entzule, jakin zornea garbitu deutsegula gure zauriai, baina orbanak lekuko, ez gara lehengo berberak".



PROIEKZINOIA

Munduari bira familian**Erredakzioa**

Isabel Aliagak, Roberto Salazarrek eta euren alabak Uxue eta Aliziak 2012an munduari buelta egin eutsien eta euren esperientziak liburu baten jaso dabez. Hilaren 16an, arrastiko 19:30ean, Igorreko Kultur Etxean egongo dira berbaldi eta proiektino baten bitartez esperientzia hori kontetako.

Igorreko familia hau bost kontinenteetatik zehar ibili zan ia urtebetez. Izan be, Isabel Aliagak eta Roberto Salazarrek herrialde, ohitura eta jentete desbardinak ezagutu eta naturaz gozatzeko pasinoak euki dabe beti, eta horrek ahal izan daben guztietan bialtzera bultzatu ditu.



ZINE KLUBA

Afrikako zinea Igorren**Erredakzioa**

Afrikari egindako lau film ikusteko aukerea izango da Igorreko Lasarte Aretoan maiatzaren atzenengo hiru eguetan, zine klubeko emonaldiotan. Hilaren 15ean, Senegalen egindako erdimetraje bi egongo dira ikusgai, eta Senegal eta Maliko filmak pantailaratuko dira hilaren 22an eta 29an, hurrengo hurrengo. Saiok arrastiko zortziretan izango dira.

Emonaldi bikotxa antolatu dabe zine klub-ekoak hilaren 15erako. Bertan Djibril Diop Mambety zuzendari senegaldarren *Le Franc* (1994) eta *La petite vendeuse du soleil* (1999) lanak proiektuko dira. Film honek, Mambety-k jente xehari eskeinitako trilogia bat hasi eban, amaitu ezin izan ebana, 1998an hil zan eta. *Le Franc* filman, zorrez josita bizi dan Marigo musikariak loterian ipiniko ditu bere itxaropen guztiak; *La petite vendeuse du soleil* izenekoan, Sili neskatok egunkariak saltzeko asmoa eukiko dau, lanbide hori Dakarren mutilentzat baino

ez dan arren.

Zine afrikarrari eskeinitako bigarren saioan, *Madame Brouette* (Moussa Sene Absa, 2003) filmaren txandea da. Film honek musika onenaren saria irabazi eban 2003ko Berlingalen eta hilketa baten istorioa kontetan dau. Tiro batzuk entzuten dira eta Naago zaurituta eta balantzaka agertzen da. Haren andreak, Danielle-k gizona hil dauala onartuten dau. Auzuneko andra guztiak bere alde ipinten dira; gizonezkoak, barriz, ez.

Malitik jatorri zine klubaren hirugarren saioan ikusi ahal izango dogun pelikulea. Abderrahmane Sissakok zuzendu eban 2006an *Bamako* izeneko filma. *Bamako* uriaren auzune pobre bateko patio baten, epaimahaia bat ipini dabe. Bertan, afrikar gizarte zibilaren ordezkariak Nazinoarteko Moneta Funtsa, Munduko Bankua eta beste hainbat eragile ekonomiko salatzen ditue, Afrikak bizi dauan egoera dala eta. Patio horretako biztanle dira Mele abeslaria eta Chaka bere gizona.

LIBURUA

Gure inguruko sendabedarren katalagoa kaleratu dau Gorka Menendezek



Gorka Menendez.

Erredakzioa

Gorbeialdeko sendabedarrak tradizionalki titulupeko liburua kaleratu dau Gorka Menendezek Ediciones Beta argitaletxeagaz. Liburu honetan, 118 landare jasoten dira euren herri medikuntzako erabilereaz. Liburuaren aurkezpena hilaren 23an izango da Igorreko Kultur Etxean.

Liburua sendabedarren gida edo katalogo antzeko bat da. Egilearen doktoretza-tesian oinarrituta dago, baina adituak ez diranak ulertuteko moduan idatzita. Gaia sendabedarrak eta jakituria tradizionala izanda, Menendezeri garrantzitsua iruditu jakon, akademiarako bakarrik ez, kaleko jentearantzat be liburua egitea eta hauxe izan da emoitzea.

Liburuaren sarreran etnobotanika kontzeptua zer dan azaldu eta ikerketaren metodologia aurkezten da. Gero herri medikun-

tzaren inguruko atal bat dakar. Bertan, herri medikuntzaren hainbat ezaugarri aitazten dira, liburu hau irakurri eta ulertuteko interesgarriak diranak. Eta ondoren katalogoa bera. "118 landare dagoz erabilerearen arabera ordena. Hau da, landaririk erabilienak lehenengo agertzen dira. Mantzanilla da lehenengoa" azaldu deutso BEGURI egileak. Landare garrantzitsuenen fitxa bat dago eta amaitukeran erreze-ta batzuk, ukenduak, enplastuak eta abar egiteko.

Illintia lagunduta

Idoia Biurrun botanika irakasleak lagundu deutso egileari landareen deskribapenak egiten, eta Josu Larrañagak eta Angel Larrea zeanuriztarrak zuzenketak egiten. Eusko Jaurlaritzak eta Arratiako Illintia alkarteak lagundu dabe diruz Gorbeialdeko sendabedarren gida hau.

BERTSOLARITZEA

Menikak jantzi dau txapela



Arratiako Bertsolari Txapelketako protagonistak.

Erredakzioa

Igor Menika Bengoetxeak irabazi dau Arratiako txapela maiatzaren lauan jokaturako Arratiako Bertsolari Txapelketako finalean. Lau izan ziran finalean parte hartu

eben bertsolariak: Igor Menika, Illart Gumuzio, Iñaki Iturriotz eta Irati Astondoa. Irati Bernaolak eta Aitor Asuak ezin izan parte hartu arrazoi personalakaitik. Iñaki Iturriotzek bigarren egin eban. Gai-emole beharretan Ibon Iza

Igor Menika, txapelketetan eroso sentiduten ez dan txapelduna

Igor Menikak lortu eban Arratiako txapela hilaren 4an eta zuzenean sailkatu da udagoienean jokaturako dan Bizkaiko Txapelketan parte hartzeako. Aspaldi honetan ez zan askotan oholtzara igoten eta bertsolari gitxi egozalako finalean hartu ebal parte dino.

Batzuek pentsetan genduan erretirautat zengozala, baina hor zagoz eta Arratiako txapela irabazi dozu gainera. Denporaldi baten ez dozu txapelketetan parte hartu, ezta? Zergaitik? Eta oraingoan zergaitik ebatzi zenduan parte hartzea?

Neuk be erretirautat euki dot neure burua. Itxi neutsanean, txapelketetan eroso sentiduten ez nintzalako izan zan. Oraingoan txapelketako talde antolatzailean egon naz (Bertsozale Elkartearen egiten dot behar umeai bertsolaritzako klaseak emoten)

eta Arratian eskualdeko txapelketea egiteko konpromisoa hartu neban. Boluntariorik ez egoala ikusita neure burua aurkeztea beste erremediorik ez dot euki. Lauko finala egin dan eskualde bakarra da Arratia.

Zelan entrenau edo prestatu ziran txapelketarako? Zer pentsau zenduan Arratiako txapela irabazi zenduan? Hau da, zelan bizi izan zenduan momentu hori?

Parte hartzaile guztiak batu gara atzen astean hiru-lau bider apur bat entrenetako. Egia esan, ez dot asko egin, baina aurkeztu nazen aurreko txapelketa guztietan batera egin dodana baino gehiago izan da.

Irabazi nebanean sinistu ezinda gelditu nintzan eta horren erakusgarri da amaierako agurrean zer esan neban be ez nazala akordetan.

Zure ustez zer euki behar dau

ibili zan.

Hirurogetabost lagun inguru bildu ziran Lasarte Aretoan finala ikusteko. Eñaut Intxaurreagaz jantzi eutsan txapela irabazleari eta berak be bertso batzuk bota zituan publikoaren aurrean. Sariak Arratiako eta Dimako bertso eskolako kideak eta Igorreko kultura zinegotzia dan Karmele Aurrekoetxeak banandu zituen.

Bizkaiko Txapelketea

Arratiako txapelduna zuzenean sailkatzen da Bizkaiko Txapelketarako eta bigarrenak aukerea dauka sartzeako puntuen arabera. Iñaki Iturriotzek 358,5 puntu lortu zituan guztira, baina Bizkaikorako sailkapenerako 249,5 puntu dira baliogarriak, buruz burukoan egindakoak kendu behar dira eta.

Lasarte Aretoan, Mirari Azalak, Ander Txakartegik, Nahikari Ayok eta Jurgi Fuentesek osotu eben epaimahaia.

bertsolari batek bertso txapelketa bat irabazteko? Teknikoa eta etorria nahikoa da?

Finalean eguna eukitea inportantea da eta eguna eukiteko ahal dan neurrian trankil joatea. Gaiak be baldintzatu leikie alde batera edo bestera, kantu lagun nor toketan jatzun... aldagai asko dagoz final txapelketa on bat baldintzatzen dabenak.

Bizkaiko txapela be ekarriko dozu Arratiara? Zeintzuk dira zure helburuak edo asmoak bertsolaritzeari jagokonean?

Ez, ez dot ekarriko. Nire asmoa eskualdeko txapelketan aurtengotik agurtzea zan baina txapeldun urten dot eta segidu beharko dot. Akaso ez nintzala joango komentau eta arduradunak motz geldituten zala esan eusten eta arrazoi daukie. Bertsozaleari zor jakon errespetuegaitik bakarrik joan beharra daukat.

Arratiako gazte bertsozaleak animau gura dodaz bertso eskolara etorten. Gu zahartzen gabiz eta lora bariak hartu behar deuskue erreleboa.

DUNBA

Lekeitio

Inazio Zubizarreta eskolako 6. mailako ikasleak

Aupa! Gu 6. mailako Inazio Zubizarretako ikasleak gara eta aurtengo ikasbidaia Lekeitiora egin dogu.

Bidea luzea izan arren, kantu eta kontu atzenean umoretsu heldu gara kostaldeko herri zoragarri honetara. Heldutakoan, monitorea ondoetorria emon deuskue, zein arau daukaguzan esan deus-

kue eta logeletan banandu gaitue. Ekintza asko egin doguz eta gehienak oso dibertigarriak izan dira. Hiru kurutzetara igon gara eta handik Lekeitio osoa ikusi dogu.

Geroxeago, jolas bat egin dogu, monitorea argazki batzuk emon deuskue eta guk lekeitiarri argazkiko lekua non dagoan itaundu deutsegu, era honetan leku horretan mezu bat topau dogu eta bertan itaunen erantzunak egon dira.

Janaria oso gozoa izan da eta bapobapo gelditu gara. Iluntzean, jolasak egin doguz, baina gehien gustau jakuna musika kutxaren jolasa izan da, ikeragari gozatu gara eta barre algarra galantak egin doguz. Gauean,

bakotzak bere logelan, kontuak, sekretuak, gure maiteak zeintzuk diran

trukatu izan dogu. *Top secret.*

Beste egun baten, gosaldun ondo-




6. mailako ikasleak.



ren Isuntzako arraun alkartekoakaz arraun egiten joan gara. Bidean zehar paisaje sano politak ikusi doguz. Arraun egin ondoren, hondartzan be izan gara, eta eguraldia on-ona izan ez arren bainau egin gara. Gauean diskotekea izan dogu baina bertan pasau diranak ez doguz kontauko!

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Tramite. 2.- Lehen bokala. Gorputzetik dabilen likido. 3.- Zoratuta. 4.- Erretan dagoanetik gas masa argitsu. Musika notea. 5.- India. Parea. Konsonantea. 6.- Letra bat. Galde aurretik. Zu eta ni. 7.- Esapidea. 8.- Antza. Bat erromatar. 9.- Famadu.

GOITIK BEHERA

1.- Erdiko bokala. Zeregin. 2.- Otzarea. Bibliako pertsonajea, Noeren semea. 3.- Bokala. Euskera zaharrean, txakur. Bake. 4.- Mosu. Urri. 5.- Antzeko. Bokala. Konsonantea. 6.- Ezkonsari. Nabar. 7.- Berba alkarketan, ele. Ahatearen hotsa. Uranioa.



Topau zazpi narrastiren izenak.

I	S	T	U	N	A	D	E	R	A
U	G	X	A	U	K	A	I	M	K
T	A	U	T	X	A	I	M	E	A
S	U	R	A	N	I	P	U	L	T
A	Z	E	A	N	M	A	S	T	I
M	A	P	E	A	A	I	K	A	R
I	S	A	R	A	N	O	E	K	U
H	I	B	E	K	A	E	R	U	A
I	O	A	B	O	A	L	R	Y	H
K	R	A	S	T	U	E	A	L	O
O	T	X	A	R	I	M	O	P	A
S	A	R	K	O	M	A	G	I	Z
A	O	L	I	D	O	K	O	R	K
S	A	T	O	L	A	P	E	K	O
O	M	A	R	E	L	I	Z	A	N

AKI MI KO

Aitzi ber

Guardia zibilak, bake prozesua arintzeko asmotan, interneteko webgune ospetsu batetan pop-up delako bat jarri du.



Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



ARIANE LANDA, ANE AMURIZA ETA JANIRE CAMPO

Harri zulatzea, meatzaldeko herri kirola Arratian

Ariane Landa, Ane Amuriza, Janire Campo eta Ziortza

Goikoetxea hari zulatzaileak dira. Santurtziko KZ Kolpeka

taldeagaz batu dira. Euretako hiru bertan entrenetan egon

ostean bildu dira BEGUGAZ, lehenago ogibide zan eta gaur egun

herri kirol dan hari zulatutean nondik norakoak kontetako prest.

Euretako bat txintxo eta guzti etorri da, beste biai lez umorerik ez

jako falta izan ostera. Takodun guanteak jantzi eta hamabi kiloko

barrena erabilten dabe esku artean Areatzako neska.

Irati Urien**Jatorriz meatzaldeko ohitura bat izanda, zelan dagoz Arratiako lau neska harri zulatuten?**

Ariane Landa: Igazko Areatzako jaietan erakustaldia egon zalako hasi ginan. Anek eta biok parte hartu genduan Areatzan talde bat sortu zalako. Gero konpetiduten hastea pentsau genduan. Gure asmoa Areatzan talde misto bat ateratea zan, baina atzanean mutilak ezetz esan dabe. Nesketatik lau baino ez gara gelditu, orduan eurekaz kontaktuan ipini eta Santurtziko KZ Kolpeka taldeagaz batu gara. Bizkaian neska taldea Santurtzin baino ez dago.

Ane Amuriza: Areatzakoak lau neska gara; Ariane, Janire, Ziortza eta laurok. Talde bat egiteko gitxienez zazpi persona behar dira; hori dala eta, beste lau neska batu gara.

Zelan antolatuten zari?

Janire Campo: Hilean behin geratzen gara eurekaz. Hortik aparte astean birritan entrenetan dogu hemen, Lamindaoko kanteran.

A.L.: Harrian egiteko joaten gara

eurekana, izan be Janirek esan dauan lez guk kanteran egiten dogu. Hasieran Ortuellako bat etorten zan gu entrenetan, baina zelan egin azaldu ostean gure kontura entrenetan gara.

Zertan zabize momentu honetan, erakustaldiak egiten, ligaren baten?

A.A.: Maiatzaren 4ean erakustaldia egin genduan Santurtzin, mutilen kontra. Orain ligeagaz hasiko gara, Ortuellan, hilaren 18an.

A.L.: Ligearen datak herriak pagetan dabenaren arabera da. Ligea zure herrira eroan gura badozu dirutzea da, horregaitik herri askotan erakustaldia egiten dabe.

A.A.: Erakustaldia egiteak 800 euro inguru balio dau, ligea eroaten badozu ostera 2000 eurotik gora.

J.C.: Ligea eroateak harriak mobidutea, kamioia lortutea... suposatuten dau.

Zer egin behar dau zehatz esanda harri zulatzaileak?

J.C.: Hogeta hamar minutu dira. Talde bakotxetik bost personak hartuten dabe parte. Botillerua, epailea eta gero hiru barrenetan. Hamahiru

zentimetroko zuloak egin behar dira, ahalik eta gehien. Hiruron artean txandakatuten.

A.A.: Hau da, ordu erdian zenbat zulo egiten dozuzan. Epaila bat egoten da, eta zuk zulo bat eginda daukazula pentsetan dozunean epaile horrek konprobau behar dau. Eginda badago, periodikua sartuten dau eta beste zulo batez hasten zara.

J.C.: Ura erabilten da hautsa ez urteko eta barrena lar ez berotuteko. Halanda be badagoz urik erabilten ez daben taldeak.

Zenbat zulo egiten dira normalean?

J.C.: Lehengo baten, adibidez, mutilak bederatzi zulo egin ebezan. Guk lau eta hamar zentimetro.

Fisikoki zer suposatuten deutesue herri kirol honek?

A.A.: Txintxo hau (barre egiten dabe hirurak). Gehien bat erresistentzia.

J.C.: Besoak eta hankak be bai.

A.L.: Ondo egitea besoak erabiltea da eta horixe ikasten gabiz ze guk hankakaz egiten dogu indarra indar gehiago daukagulako hanketan, baina holan ez da egiten. Gero lepoko minak eta, txarto egiteagaitik sortuten dira.

Aparteko ariketaren bat egiten dozue besoak landuteko?

J.C.: Ez. Punta bako barren bat daukagu. Pisu handiagoa dauka eta hara goazenean hori erabilten dogu berotuteko.

A.A.: Orain ia galapan egiten hasten garan, erresistentzia bai ala bai behar dogu eta.

Taktikaren bat daukazu? Orden jakin bat edo?

A.L.: Gure artean ez. Baina eurekaz gagozanean eurak hasten dira zuloa egiten, oraindino gure punteria ez da ona eta.

J.C.: Eurak zuloa egiten hasi eta gero guk zulo horreek handitu egiten doguz.

A.A.: Harriak markautu dagoz. Molde moduko bat daukie, pintautu dago



zuloa non egin.

Gustura zabizela emoten dau. Aurrerantzean ze asmo?

A.L.: Kuadrilako mutilai probetan etorteko esaten deutsegu. Kontua da ezin zarala ezer barik hasi. Dirurik euki ezean ezinezkoa da hau. Barreneak ehun euro balio ditu eta talde bakoitzean gitxienez lau behar dira.

Bestelako herri kirol gehien moduan harri zulatuten ibilteak babes faltea daukala igarten dozue?

A.A.: Bai. Eta suposatuten dauan gastuak ez dau lagunduten.

Non eukiko dogu zuek ikusteko aukerea?

A.A.: Areatzan bagilaren 21ean, herri kirol egunean, erakustaldia egingo dogu. Abuztuaren 23an Bilboko jaietan. Herriko jaien txupinazioa hondatu deuskue (dino umorez).

A.L.: Erakustaldi gehienak handik izaten dira. Gallarta...

J.C.: Binakakoa eta mistoa be badagoz baina oraindino ez dakigu apurta edo ez.

Arratiako lehenengo harri zulatzaileak zariela esan leiteke?

J.C.: Baietz pentsetan dogu. Arratiako aitzindariak gara (dino umorez).

A.L.: Neskak gainera!

A.A.: Ondo egongo litzateke Areatzako talde bat egitea, baina Areatzako ez bada egiten Arratiakoa be ederto.

Jenteari arraro egiten jako? Bardinotsue ezer?

J.C.: Nire amari bai.

A.L.: Komentario tipikoak egiten dabez, gorputzak itxura indartsua har-

tuko dauala eta.

Igarten dozue besoak indartsuago daukazuezala?

A.A.: Bai zera. Igarten doguna agur-jetak dira.

A.L.: Indar gehiago daukagula igarten da baina ez da fisikoki aldaketarik igarteko astirik egon. Denporaldia udan bakarrik da. Gitxi gorabehera maiatzean hasten gara eta zemendia baino arinago amaituten dogu.

Kirol honetan badago animetako berba teknikorik? Zelan animetan zaitue edo zari?

A.L.: Apartekorik ez. "Gogor!".

J.C.: Sakatu! Emon!

A.A.: Arinago! hankak ez dakit zer...

Azkenaldian modan dagoz desafioak Arratian...

A.A.: Ondo egongo litzateke Arratiako beste talde baten kontra egitea. Areatza Dimaren kontra edo Areatza Zeanuriren kontra. Bueno Zeanuriren kontra ez, izan be han badago "bitxo bakotxi..." Irati Astondoa eta konpainia.

Andra probak hasi barri, ez zaitue tentetan?

A.L.: Apurtxo bat bai.

J.C.: Lehengoan Zeanurin egon ginan ikusten eta Arianek esan eustan "Janire begiratu zelango hankak, benga geu be bai!".

Sustorik ez dozue euki barreneagaz hankea jota edo?

J.C.: Hankea ez baina burua bai. Nik esaterako gaurko entrenamentuan samea urratu dot.

A.A.: Nik be gaur kolpe ederra hartu dot buruan. Kaskua edo beharko dogu guk ondino!

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)












KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.